

GIPUZKOA

20 sagardo ezberdin dastatzeko aukera izango da gaur Leitzako plazan

E. BELAUNTZARAN | LEITZA.

7 junio 2014
00:06

Leitzako kultur aroko hi-tzordu garrantzitsua izango da gaur arratsaldeko 7etatik arurera: Sagardo Eguna. Duela zazpi urte hasi ziren Leitzan egun hau antolatzen eta arrakasatsua suertatzen da beti, gainera urtetik urtera jende gehiago hurbiltzen da ekitaldi honetara.

Plazan izango da eguraldia lagun badu, eta karrapean euria ari badu. Aurtengoan, 20 sagardogile baino gehiagoren sagardoa dastatzeko eta pintxo ederrak jateko aukera izango da txanpon gutxi batzuren truke.

Besteak beste, Añota, Astarbe, Arratzain, Calonge, Iparragirre, Izeta, Larre-gain, Lizeaga, Ohiharte, Oianume, Petritegi, Satotxa, Zabala, Zalbide, Barkaiztegi, Isastegi, Gartziategi, Egi-Luze, Toki Alai, Oialume-zahar sagardotegikoek eskainiko dituzte.

Bestalde, aipatzekoa da gaur arratsaldeko 8etan hasita Leitzako zineman antzerki lan berri bat ikusteko aukera izango dela. 'Aresoko harrie' izenburupean, ordu eta erdiz priemran pasatzeko aukera paregabea izango dute bertara hurbiltzen direnek. Aipagarria da an-tzezlari hau Aresoko herritarrek prestatu eta egindako lana dela. Bertan herriko bizilagunen inguruko pasadizoak biltzen dira umore ederrean.



Jende ugari hurbiltzen du urtero sagardo egunera. / ALKE

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.